

GERRA EGITEKO MYANMARREN ARMA: ROHINGYEN ETXEEI SU EMATEA

Ainara Lertxundi

Aung San Su Kyi Bakearen Nobel saridunak bizkarra eman die rohingyei, Myanmarren jazarpen izugarria pairatzen duen etnia musulmanari hain zuzen. Jada 400.000tik gora lagunak ihes egin dute Myanmarretik, militarrek beraien herrixka eta etxeei su eman eta gero.

Gobernu birmaniarrek 2015ean aditzera eman zituen datuen arabera, Bangladeshekin muga egiten duen Myanmar-ko Rakain estatuan hiru milioitik gora pertsona bizi ziren. Horietatik, milioi bat rohingyak ziren. Baina horiek ez daude eroldan sartuta, Gobernuak ez baitie herritartasuna aitortzen, eta, beraz, oinarritzko eskubideak ukatzen dizkie. Abuztuaren 25az geroztik, 420.000 rohingyek ihes egin dute Bangladeshera Myanmar-ko Armadaren errepresio gordina dela eta. Hots, Rakainen bizi zirenen ia erdia. Gobernu-ko bozeramaile batek Rakain estatuko iparraldean rohingyak gehiengoa ziren herrien %40 hutsik daudela aitortu du, biztanle guztiek alde egin dutelako. Human Rights Watch (HRW) gobernu-kanpoko erakundeak Myanmar-ko militarrek Rakaineko 214 herrixka txikitu dituztela salatu berri du. Rohingyen etxebizitzetako su ematea gerra arma bihurtu du Gobernuak, garbiketa etniko baten testuinguruan rohingyen balizko itzulera galarazteko.

Irailaren 16an satelite bidez lortutako irudiek frogatzen dutenez, Maungdaw, Buthidaung eta Rathedaung barrutietan 214 herrixka erre dituzte militarrek. «Argazki horiek Armadak eragindako suntsipen masiboa frogatzen dute, lekukoen testigantzekin batera», salatu du Asiarako HRWeko zuzendariordea den Phil Rober-
tsonek. «Frogak ukaezinak dira. Rohingyak Myanmar-
rretik kanporatzeko, Armada horien etxeak erretzen
ari da. Ez zaitezte okertu, garbiketa etniko garbi baten
aurrean gaude», nabarmendu du Krisialdiei Aurre Egi-
teko Amnesty International erakundearen arduradu-
nak, Tirana Hassanek. «Metodologia berbera da kasu
guztietan. Militarrek herrixka bat inguratzen dutene-
an, ikaratuta ihes egiten duten herritarrei tiro egiten
diete, eta, ondoren, erabat txikitu arte etxeak erretzen
dizkiete. Etengabe errepikatzen den patro-
i sistemati-
koa da. Gizateriaren aurkako krimenez jo daiteke, zi-
bilak hiltzen eta indarrez kanporatzen ari dira-eta»,
gaineratu du. Sute horietako asko ikusgai dira Bangla-
deshetik, mugaren beste aldetik.

Shah Porir Dwipeko hondartza Naf ibaiaren bokalean dago, Bengalako Gol-koan. Myanmar eta Bangladesh arteko muga fisikoa da ibai-
a. Bertatik, erretako etxe eta abereen kiratsa usaindu daiteke. Kea ere nonahi ikus daiteke. Goizaldean edo gauez, ihes egitea lortu dutenek, Naf ibai-
a txalupa txikietan zeharkatzen saiatzen dira. 45 urte dituen Fatem Begumek Shah Porir Dwipera iristea lortu du, errenka eta alabak lagunduta. Le-
horrera iristeko, baina, beste txalupa bat hartu behar du oraindik. Ez daki nora jo, soilik lehorrera iritsi nahi du bi astez oihanean ezkutatu-
ta egon ondoren. Bi seme eta se-
narra galdu ditu.

Abuztutik hona, Amnesty Internati-
onalek tamaina handiko 80 sute detektatu ditu Rakinen, batez ere rohingyak bizi di-
ren zonaldeetan. Behatzaileek zonaldean sartzea debekatuta dutenez, baliteke su-
teak gehiago izatea eta kalteak uste baino askoz larriagoak izatea. «Sute kopurua handi-
agoa izan daitekeen susmoa dugu. Montzoien sasoia denez, zerua hodeiz es-
talita dago eta horrek satelite bidez iru-

diak hartzea zaildu egiten du. Gainera, sateliteen sentsoreek ez dituzte antzema-
ten txikiak diren suteak. Nabarmentze-
koa da ere rohingyak bizi ez diren zonal-
deetan ez dela deus ere gertatu, horietan ez dago suteen inolako arrastorik», hela-
razi du Hassanek.

«Militarrak eta paramilitarrak etorri ziren nire herrira abuztuaren 25ean. Ha-
sieran airera tiro egin zuten, ondoren ihes egiten zutenen kontra tiro egiten hasi ziren, bereizketarik egin gabe. Gertu dagoen baso batean babestu nintzen, eta bertatik soldaduak ikus nitzakeen. Hiru egunez gelditu ziren herrian, lapurretan eta etxeak erretzen». Amnesty Interna-
tionalek bildutako lekukotasunetako bat da. Behin eta berriro errepikatzen den testigantza lazgarri eta odoltsua: «Solda-
duak iritsi zirenean, herritarren kontra tiro egiten hasi ziren. Beldurtuta korrika atera ginen, norabide guztietan. Milita-
rrek bi gaztetxo nola hiltzen zituzten ikusi nuen. Nire herrian 900 etxebizitza zeuden, orain 80 besterik ez daude. Jada ez da inor geratzen, ezta gorpuak lurpe-



Myanmar-ko Armadaren jazarpenetik ihes egindako rohingyak Kutupalongeko kanpalekuan, Bangladesheko Ukhia barrutian.

Dominique FAGET | AFP

Euripean, iheslari bat seme txikia besoetan duela laguntza jasotzeko zain, Sha Porir Dwipeko kanpalekuan, Bangladeshen.
Dominique FAGET| AFP

ratzeko ere». Yae Twin Kyuneko biztanle baten lekukotasuna da.

Hiriguneetan egoera antzekoa da. Maungdaweko barrutian, non biztanleriaren %80 rohingyak diren, sugarrek rohingyen auzoak txikitu dituzte; rohingyak bizi ez diren eremuetan, berriez, ez da suterik izan.

Myo Thu Gyi herriko biztanle baten ahotan, militarrek «suziri jaurtitzaileak eta gasolinaz beteriko botilak» erabili zituzten etxeak erretzeko.

LEKUKOTASUN GORDINAK

Myanmarko Gobernuak suteen erantzuleak rohingyak direla dio. Hassanek guztiz ukatu du aukera hori. «Gure ikerketek argi eta garbi frogatzen dute soldaduak eta talde paramilitarrak direla arduradunak. Myanmarrek herritar gisa dagozkien eskubideak aitortu behar dizkie, hamar-kada luzez jasan duten bazterketa sistematikoa bertan behera utziz, hori baita krisialdiaren muina. Nazioarteko komunitateak begiak zabaldu eta etnia musulman honetako kideek bizi duten ames-



gaiztoaz jabetu behar du. Bakearen Nobel saridun Aung San Suu Kyirengan eta Armadako burua den Ming Aun Hlaingengan presio gehiago egin behar du giza eskubideen urraketa eta inpunitatea geldiarazteko», nabarmendu du Amnesty Internationaleko ordezkariak.

Al Jazeera telebista katea Bangladesheko Cox's Bazar hiriko Sadar ospitalean izan zen. Bertan erredurak pairatu dituzten rohingya ugari daude. Dildar Begum 10 urteko alabarekin zegoen. Abuztuaren 29an, soldaduek beraien herriari eraso egin zioten. Senarra, seme txiki bat eta amaginarreba galdu zituen. «Alaba eta biok bizirik ateratzea lortu genuen, baina soldaduekin batera zeuden bi monje budistek ikusi egin gintuzten eta labana batekin gu hiltzen saiatu ziren. Hilik geundela pentsatu eta alde egin zuten».

Rohingyen ihesaldia eta haien itzulera eragozteko, Armadak lurreko minak ipini

ditu mugan. Askok besoak eta hankak galdu dituzte. Hala, iheslari asko zauri larriekin iristen dira Bangladeshera. Azizul Haquek 15 urte zituen. Bi hankak eta beso bat galdu zituen lurreko mina bat zapaldu zuenean. Alanbre-hesia zeharkatzeko zorian zegoen. Bangladesheko ospitale batean hil zen. Amari zuku bat erosteko erregutu zion, baina honek ez zeukan dirurik. Handik ordu batzuetara hil zen.

«Leherketa handi bat entzun genuen. Bere hankak airean ikusi nituen. Baina inork ezin gintuen lagundu. Guztiak presaka zeuden, birmaniarrek jarraika genituen-eta», gogora ekarri du hildakoaren amak. Beste hiru seme-alaba ditu. Haque zegoen gela berean, zauritutako hogeit bat rohingya daude. Sabekun Nahar, 50 urtekoa, horietako bat da. Berak ere lurreko mina bat zapaldu zuen eta ez daki aurrerantzean berriro ibiltzeko gai izango ote den.

«Errepresio sistematikotik ihes egiten dutenei kalte handiagoa eragiteko estrategia gupidagabea da», salatu du Amisty Internationaleko ordezkari Tirana Hassanek. Mugarik Gabeko Medikuek gobernu kanpoko erakundeko Larrialdietarako koordinatzailea den Robert Onusen aburuz, berriez, «nazioartea ez da jabetu krisiaren larritasunaz. Mundu guztiak daki bi aste eskasetan 400.000tik gora rohingyek ihes egin dutela, baina ez da kontziente zein egoera larrian dauden pertsona horiek. Kanpalekuetan bizi-baldintzak benetan gogorrak dira».

Rohingyen ihesaldia eta haien itzulera eragozteko, Mynamarko Armadak lurreko minak ipini ditu mugan. Askok besoak eta hankak galdu dituzte ihesaldian. Hala, iheslari asko zauri larriekin iristen dira Bangladeshera

«Soldaduak herritarren kontra tiro egiten hasi ziren. Beldurtuta korrika atera ginen, norabide guztietan. Nire herrian 900 etxe zeuden, orain 80 besterik ez daude. Jada ez da inor geratzen, ezta gorpuak lurperatzeko ere»

